



JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,

ZIURTATZEN DUT: Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2020ko abenduaren 21ean, **649** Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

IKUSIRIK: 2020ko Aurrekontu Orokorretan, Barrundiako udalerrian erroldatutako herritarrei euskara ikasketak garatzeagatik beken emakidaren oinarriak onartu ziren. Horiek emateko honako baldintza hauek bete behar ziren: Barrundian erroldatuta egotea eta euskara eskoletan ehuneko 75etik gorako asistentzia egiaztatzea edo, hala badagokio, HABE edo gaitasun probak egiaztatzen dituen beste edozein organismo ofizialetan matrikulatuta dagoen ikastaroa gainditu izana egiaztatzea.

Diruz lagundu beharreko ikasturtea 2019-2020 dagokionari da.

Oinarri horiek 2020ko apirilaren 03ko (39. zenbakia) Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

KONTUAN HARTUZ: Deialdia arautzen duten oinarrietako 4.2ak xedatutakoaren arabera, eskaria eta dokumentazioa 2020ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Barrundiako Udalaren erregistro orokorrean.

GERTUA IZANIK: Pablo Rodriguez Quillay jaunak, epean eta era egokian, 2019-2020 ikasturteari dagokion beka eskaria aurkeztu du.

IKUSIRIK: Udaleko Hizkuntza Normalizatzaillearen Teknikariak 2020ko urriaren 23an luzatutako txostena.

KONTUAN HARTUZ: Indarrean dauden Aurrekontu Orokorretako 335.480.001 partidaren aurrekontu-zuzkidura dago.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENENGOA.- Pablo Rodriguez Quillay jaunari, 2019-2020 ikasturtean euskara ikasketak garatzeagatik beka luzatzea. Beka horren zenbatekoa 372,40 €takoa da.

BIGARRENA.- Beka berehala ordaintzea 335.480.001 partidaren pentzutan.

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau interesdunari jakinaraztea."

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut, onetsi eta zigilitua, Ozaetan 2020ko abenduaren 21ean.

